

1. Grezia eta Mendebaldeko Filosofia



Platon eta Aristoteles

Pentsamendu filosofikoaren sorrera Grezian:


- Mitotik Logosera (arrazoizko pentsamendura)



Esne Bidearen sorrera (Rubens)



*“Ezer ez dakit, ezer ez dakidala
baizik”*



Filosofiaren definizioa

Filosofia hitza grezieratik dator. Hitz konposatua da: **filia** (maitasuna, erakarpena) eta **sofia** (jakinduria) terminoak osatua da.

Hortaz, **filosofiak** jakinduriarekiko zaletasuna esan nahi du.

Zergaitik sortu zen filosofia Grezian K.a. VI mendean?

- Erlijio olinpikoen krisian
- Egoera soziopolitikoa *polis*-etan
- Demokraziaren sorrera
- Beste herrialdeko harremanak
- Pentsamendu abstraktua

Idazmena:


- lineal A Kretan K.a.1900
- lineal B Grezian K.a. 1700



Sokrates aurreko filosofia (presokratikoak) K.a. VI. mendea

- Heraklito: “Dena etengabeko jarioan dago”.

“Ezin gara ibai bateko ur berberean bi aldiz bainatu. “



Ezagutza ezinezkoa da.

- Parmenides: “Izatea betikoa da, eta aldaezina”.

Gertaeren gaineko ikuskerak zentzumenei
jaramonik ez egitea dakar.

Pentsamenak benetako ezagutza dakar izatearen
ezagutza, zentzumenei jaramonik egin gabe.

36. **Heraklitok** eta **Parmenidesek** izanari buruzko aurkako iritziak zituzten. **Heraklitok** zioenez, izana etengabeki jariatzen duen erreka baten ura bezalakoa da: atxiki edo ezagutu ezinezkoa, hain zuzen ere. **Parmenidesek** zioenez, izana da eta ez-izana ez da. Platonek izana ezagutu nahi du, eta Parmenidesi jarraitzen dio. Baina orduan, nola gerta daitezke izakien aldaketak (adibidez hazia lore bihurtzea), aldaketaren bat gertatzeko izateari utzi (hazia izateari utzi) behar baldin bazaio? Non daude benetakoak diren eta aldatzen ez diren izakiak?

Sofistak

- Kanpotarrak ziren. Ez ziren atenastarrak.
- K.a. V-IV meendetakoak
Ad. Gorgias edo Protagoras
- Erretorika-eskolak zabaldu: interes pribatuak lehenesten ziren, egia eta zuzentasunaren gainetik. (Platonen ustez)
- Naturak (*Psysis*) ez du ikerketa gaia izan behar.
- Gai berriak: antropologikoak, hizkuntzazkoak, zuzenbidezkoak, politikoak eta moralak.
- Eszeptizismo epistemologikoa, erlatibismo morala eta legeen konbentzionaltasuna.

Sokrates

- K.a. 470 urte inguruan jaio zen Atenasen.
- 30 tiranoen politikaren kontra azaldu zen.
- K.a. 399an, epaiaren ebazpena onartuta, hil egin zen.



Antierlatibismo moralak: definizio unibertsalak

- Sokrates sofisten erlatibismoaren kontra agertu zen.
- Iritzi guztien gainetik egia morala bilatu behar da. Lehen moral arrazionala.
- “**Intelektualismo etikoa**”: Inork ez du gaizkia nahita egiten, baizik eta jardunbide zuzena ezagutzen ez duelako.
- «*Izan zaitez jakintsu eta ona izango zara*».

Maieutika da Sokratesen ezagutzeko metodoa.

34. Maieutikaren helburua ongiari buruzko egia aurkitzea da. Bidea elkarrizketa da. Galdera asko egiten zaizkio solaskideari, horrek, konturatu gabe, erantzun kontraesankorrak eman arte. Orduan, kontraesanean harrapatutakoak ezer ez dakiela onartu behar du. Eta are galdera gehiago egiten zaizkio, egiazko erantzuna aurkitu arte.

Maieutika: Gure barnean ditugun ezagutzak
erditzen lagundu behar du filosofiak.
Ezagutzean ez dugu ezer berririk asmatzen
barneko edukiak kanporatzen baizik.



DISERTAZIORAKO GAI- PROPOSAMENAK (2025)

- Sofistek eta Sokratesek filosofiari eman zioten bira antropologikotik abiatuta, auzi etiko-politikoek garrantzi handia hartu zuten. Ba al dago gizarte eredu edo erregimen politiko perfekturik? Eta, balego, zer ezaugarri izango lituzke?
- Sofistek eta Sokratesek filosofiari eman zioten bira antropologikotik abiatuta, auzi etiko-politikoek garrantzi handia hartu zuten. Ba al dago ongiaren edo justiziaren eredu unibertsalik, ala erlatiboak dira?

Platon

- Atenasen jaio zen. K. a. 427. urtean.
- “Platon” goitizenak “sorbaldazabalekoa” esan nahi du.
- Hezkuntza militarra jaso. Peloponesoko gerran zalditerian borrokatu zuen. (Atenas v.s. Esparta)
- 20 urtegaz Sokrates ezagutu zuen eta haren taldekide egin zen.
- Demokrazia indarrean zegoela Sokrates epaitu eta heriotza-zigorra ezarri zioten Sokratesi.


- Platon Sirakusan bere teoria politikoak abian jartzea saiatu zen.
- K.a. 387an Platonek **Akademia** izeneko eskola sortu zuen. K.a. 347. urtean Platon hil zen. (80 urteekin)



Ideien teoria: dualismo ontologikoa

- Zentzumenen bidez hautematen dugun mundu fisiko-materiala etengabe mugitzen eta aldatzen ari da. Handik **iritzi** ezbardinak baino ezin dira atera. (*Doxa*)
- Benetazko ezagutza, **zientzia**, ideietan oinarritu behar da. Ideien mundua (*Episteme*)


- Ideiak egonkorrak dira, ez dira pentsamenduaren asmazioak, betierekoak eta perfektuak baizik. Benetako errealitatea.
- Ideia unibertsalak materiako mundu honetatik kanpo legokeen izate-eremukoak dira. Ideiak mundu sentikorretik kanpo (ideien munduan) badaude.



Ideien mundua

Mundu sentikorra

Ideien hierarkia



Ongiaren ideia

Baloreen ideiak:

zuzentasuna, edertasuna, egia

Matematikako kontzeptuak:

bardintasuna, batasuna

Gauza sentikorren ideiak: zaldia, zuhaitza...

Anamnesiaren teoria

48. Nola ezagutzen dira ideiak? Jaiotzaz ditugu adimenean, geure arimak ikusi zituelako, mundu ulergarrian (Ideien munduan) zebilenean. Arima gorputzera erori eta bertan haragitzen denean, ia ahaztu egiten ditu ideiak. Baina eremu sentigarriko gauzak ikusi eta beraiez pentsatzean, dagozkien ideiak gogoratzen ditu arimak. Ezagutzea Birgogoratzea da.

Dialektika

Elkarrizketaren bidez, zientziaren printzipioak (Ideiak) eskuratzen dira. Horretarako mailaz maila igaro behar da hasierako hipotesi okerrak (iritziak) baztertuz, kontzeptu aldaezinak (zientzia) eskuratu arte.

Filosofoak dira azken pausu hau emango dutenak, eta ondorioz, dialektikoak izango dira: zientziak ezagutu ondoren, Ongia (azken urratsa) ezagutzea lortuko dute. Eta ikaskizunak bukatu ondoren, hiriaren agintea beren gain hartzeko gai izango dira.

Platonen bibliografia oso zabala da, baina haren lanik garrantzitsuenak eta ezagunenak **"elkarrizketak"** izeneko idazki-sailak dira, filosofia eta etika bezalako gaiak jorratzen dituztenak. Hona hemen Platonen lan nagusi batzuk:

- **"Errepublika" ("Politeia")**: Platonen obrarik garrantzitsuena eta eragin handiena izan duena. Justizia, gobernuak, eta gizarte ideala aztertzen ditu, eta bertan azaltzen du Platonen ideien teoria ospetsua.
- **"Fedon"**: Arimaren hilezkortasunari buruzko elkarrizketa bat da, non Platonen irakasle Sokratesen azken egunak azaltzen diren. Bertan, arimaren eta gorputzaren arteko bereizketa sakondu egiten da.
- **"Otoruntza" ("Symposion")**: Maitasunari buruzko elkarrizketa filosofikoa. Parte-hartzaile bakoitzak maitasunari buruzko ikuspegi desberdinak eskaintzen ditu.
- **"Gorgias"**: Moraltasuna eta politika eztabaidatzen dira bertan, eta Platonen ikuspegi etikoak eta politikak azaleratzen dira.
- **"Parmenides"**: Ideien teoriari buruzko elkarrizketa sakon bat da, eta Platonen filosofia idealistaren zenbait kritikak biltzen ditu.
- **"Timaeus" eta "Critias"**: Kosmologiaz eta Atlantida mitikoa bezalako gaiak jorratzen dituzte.
- **"Sokratesen apologia"**: Sokratesek, Atenasko epaimahaiaren aurrean, bere filosofia defendatzen duen elkarrizketa da.

Platonen lanak mendebaldeko filosofiaren eta gizartearen oinarria bihurtu dira, eta haren ideiak oraindik garrantzitsuak dira etika, politika, eta epistemologian.

PLATON. Datu biografikoak eta testuinguru historikoa.

- **Ideien teoria.**
- Ezagueraren teoria: zientzia eta iritzia. Dialektika.
- Ongiaren kontzeptua.
- Dualismo antropologikoa: gorputza eta arima. Arimaren teoria.
- **Bertuteak eta hiri ideala.**

Gehienez 150 hitz !!

Haitzuloaren alegoria



EQUIVALENCIAS SIMBÓLICAS DEL MITO

Exterior	Sol		Idea de Bien	Mundo inteligible
	Cosas naturales		Ideas	
	Sombras de las cosas naturales		Objetos matemáticos	
Caverna	Fuego	Cuesta escarpada= Dialéctica 	Conocimiento confuso	Mundo sensible
	Objetos artificiales		Seres vivos y objetos	
	Sombras objetos artificiales	Prisioneros= los seres humanos en el mundo sensible 	Imágenes	

Filosofiaren historia USE

2020/2023/2025?

“Ulergarriaren munduan atzematen den azkena ongiaren ideia da, nekez atzeman ere. Behin susmatuz gero, gauzetan den alderdi zuzen eta eder guztien zergatia dela ebatzi behar da; beste aldetik, mundu ikusga(rr)ian argia eta argiaren emailea sortu dituen eran, mundu ulergarrian egiaren eta ezagumenaren sortzailea dugu ongia, eta berau atzeman behar du bizitza pribatuan zein publikoan zentzunez jokatu nahi duenak”.

Platon: Errepublikak VII, 3.

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK:

TESTU ULERMENA. PUNTU 1.

Laburpena zuzentzeko irizpideak:

Kontuan izango da laburpena testua baino laburragoa izan behar dela.

Testua baino luzeagoa den azalpena idazten baldin badu ikasleak, ez da laburpen bezala onartuko.

0 PUNTU: Ikasleak ez du testuaren ~~ideia nagusia~~ aurkezten.

0.5 PUNTU: Ikasleak testuaren ideia nagusia aurkezten du baina ez oso modu egokian. ~~Jatorrizko testuaren hitzak gehiegi errepikatzen~~ dira edota ~~ez daude ideiak ondo lotuak~~.

PUNTU 1: Ikasleak testuaren ideia nagusia eta azpi-ideiak modu antolatuan aurkezten ditu. Testu ulermena ez da jatorrizko testuko hitzen errepikapen soilak: beste hitzekin eta hizkuntza filosofiko egoki batean laburtuta dago.

DISERTAZIOA. 4 PUNTU

2.- DISERTAZIOA: idatzi azpian duzun galderaren inguruko disertazio bat. Eman **tesiaren aldeko eta kontrako argudioak**, **historian zehar izan diren ikuspegi ezberdinak erabiliz eta borobildu zure idazlana ondorio eta iritzi pertsonalarekin**. (200-300 hitz)(4 puntu). Ebaluatuko diren Konpetentzia Espezifikoak: 2, 3 ,8 eta 9. Oinarrizko jakintzak: Erdi Arotik Europako Modernitatera.

“Platonen iritiz, **Ongiaren ideia ezagutu gabe, zentzuz (=Ondo) aritzea ezinezkoa da**. Garatu ezazu disertazio labur bat, gutxienez Platonen tesi horren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat emanaz. Ondoren, aurkez ezazu zure hausnarketa tesi horri buruz.” (Eredu zaharra)

“Sofistek eta Sokratesek filosofiari eman zioten bira antropologikotik abiatuta, auzi etiko-politikoek garrantzi handia hartu zuten. **Platonen ustez ongiaren ideia unibertsala da, "bizitza pribatuan zein publikoan zentzuz jokatu nahi duenak" ulertu beharrekoa**. Ba al dago ongiaren edo justiziaren eredu unibertsalik, ala erlatiboak dira?” (Eredu berria 2025)

Dualismo antropologikoa

Gizakiak bi osagai ditu:

- Arima (jainkozkoa, betierekoa, hilezina).

Hiru zazitan banatuta.

Gurdi hegodunaren alegoria

- Gorputza (hilkorra, lizuna, “*arimaren kartzela*”).)

Gurdi hegodunaren alegoria

¿Cómo enseñar los mitos platónicos?

EL ALMA TIENE TRES PARTES

APETITIVA
(En el abdomen)

RACIONAL
(En el cerebro)

IRASCIBLE
(En el pecho)

MITO DEL CARRO ALADO

• Pero si el auriga pierde el control del carro, el alma deja de **contemplar bien las esencias** en su viaje por el cielo. Además **cae a lo terrestre y se une a un cuerpo.**

Una persona es justa cuando cada parte de su alma realiza bien su cometido

Concepción Pérez García

- **Arrazoi arima:** zati arrazionala. **Buruan** kokatzen du eta **gurdi-gidariak** ordeztzen du.
(Zati hau **hilezkorra** da, beste biak gorputzagaz lotuta daudenez, beragaz hilko dira)
- **Suminezko arima:** edo zati **oldarkorra**. Gaitzespen, mendeku, **ausardia...** **Bihotzean** datza eta **zaldi zuriak** ordezkutzen du.
- **Irritseko arimak.** Otorduaren **plazerra**, mina... **Sabelean** kokaturik dago. **Zaldi beltza.**

Bertutea (*Areté*)

Bertutea: Izaki bakoitzaren betekizunera eramaten duen bidea da.

- **Arrazoi-arimaren** onbide edo bertutea **zuhurtzia** da. Egia eta ongia bilatzen du. Bese bi zatiak zuzendu behar ditu.
- **Suminezko arimaren** ontasuna **sendotasuna** da. Asmo eta nahiak harro sentitzeko oreka.
- **Irrizteko arimaren** dohainena **neurritasuna** da, gure gurarien joerak neurtzeko eta menderatzeko.

Zoriontasuna hiru arimak elkarrekin ondo konpontzetik dator

Bertutea eta hiri ideala


Errepublika idazlanean erkidego perfektua lortzeko **hezkuntzarik** egokiena emon behar da.

Komunitatearen jatorria eta helburua **zuzentasuna** da.

Zuzentasuna, hirikideak dagokien eginkizuna betetzen lortzen da.

Gizarte sailak: Platonen errepublikan

- **Gobernari filosofoak:** euren bertutea zuhurtasuna. Heziketaren azken mugara heltzen direnak.
- **Zaintzaleak:** Soldaduak, gaitasun fisiko eta moral handikoak. Euren bertutea: sendotasuna.
- **Produktugileak:** Eskulangintzan trebeak. Ekoizleak. Euren bertutea: neurritasuna



Filosofiaren historia USE

2021/2024

“Adiskide maitea, berriro ahaztu duzu —esan nuen— **legeari** ez zaiola interesatzen egundoko **zoriontasunaz** gozatzen duen gizatalderik egotea; osterantzean, hiri osoan zoriona zabaltzen ahaleginduko da, eta konbentzitura edo behartuta **hirikide**en artean bizikidetasuna ere sartzen, bakoitzak taldearen mesedetan eman ditzakeen laguntzak emanaraziz. Legeak berak tankerako gizon-emakumeak hezten ditu, ez baina norberak nahi duen eran jarduteko, baizik eta **estatuaren batasuna** lortzeko asmotan”.

Platon: Errepublika VII, 5

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK:

TESTU ULERMENA. PUNTU 1.

Laburpena zuzentzeko irizpideak:

Kontuan izango da laburpena testua baino laburragoa izan behar dela.

Testua baino luzeagoa den azalpena idazten baldin badu ikasleak, ez da laburpen bezala onartuko.

0 PUNTU: Ikasleak ez du testuaren ~~ideia nagusia~~ aurkezten.

0.5 PUNTU: Ikasleak testuaren ideia nagusia aurkezten du baina ez oso modu egokian. ~~Jatorrizko testuaren hitzak gehiegi errepikatzen~~ dira edota ~~ez daude ideiak ondo lotuak.~~

PUNTU 1: Ikasleak testuaren ideia nagusia eta azpi-ideiak modu antolatuan aurkezten ditu. Testu ulermena ez da jatorrizko testuko hitzen errepikapen soilak: beste hitzekin eta hizkuntza filosofiko egoki batean laburtuta dago.

DISERTAZIOA. 4 PUNTU

2.- DISERTAZIOA: idatzi azpian duzun galderaren inguruko disertazio bat. Eman **tesiaren aldeko eta kontrako argudioak**, **historian zehar izan diren ikuspegi ezberdinak erabiliz eta borobildu zure idazlana ondorio eta iritziz pertsonalarekin**. (200-300 hitz)(4 puntu).
Ebaluatuko diren Konpetentzia Espezifikoak: 2, 3 ,8 eta 9.
Oinarrizko jakintzak: Erdi Arotik Europako Modernitatera.

“Platonen iritziz, ***Estatu zuzena lortzen da Estatuko klase edo gizatalde bakoitzak berez dagokiona betetzen duenean***. Garatu ezazu disertazio labur bat, gutxienez Platonen tesi horren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat emanaz.
Ondoren, aurkez ezazu zure hausnarketa tesi horri buruz(Eredu zaharra)

Aristoteles



- **Mazedoniarra** zen. (K.a. 384-322)
- Aita Mazedoniako erregearen medikua izan zen. (Zientziarekiko eta politikarekiko interesa)
- **Platonen Akademiako ikaslea** izan zen 20 urtez. Platonen heriotzaren ostean ez zuen lortu Akademikako zuzendaria izatea. (Mazedoniarra izateagaitik?)
- **Lizeo** eskola zabandu zuen. (Peripatetikoak)



LAS CONQUISTAS DE ALEJANDRO MAGNO



- **Alexandro Handiaren maisua izan zen, 6 urtez.**
- Alexandro Handia hil zenean atenastarrek fedegabetasunaz zalatu zuten, Sokratesen kasuan bezala, baina Aristotelesek handik ihes egitea erabaki zuen.

Ezagutza (epistemologia)

- **Metafisika** liburuaren hasiera: “*Jakiteko irrika grina naturala dugu.*”
- **Ezagutza objektiboan** sinesten du. **Ikusmenak** ezagutza sentigarriarik seguruena, orokorrena eta handiena da.

Ezagutza mailak

- A) Sentipena: *“Ez dago adimenean aldez aurretik sentimenetatik iragazi ez dan ezer”*.
“Tabula rasa”
- B) Esperientzia: *“Sentipen edo oroitzapenen koordinazio arrazionala”*
- C) Zientzia: Kausen ezagutza
- D) Jakituria edo lehen zientzia: Ontologia, lehen kausa.

LOS GRADOS DE CONOCIMIENTO



según Aristóteles

"Todos los hombres por naturaleza **desean saber**. Señal de ello es el amor a las **sensaciones**."



Filosofiaren historia USE

2021/2023/2024

“Gizaki guztiek berez dute **jakiteko** guraria. Horren adierazle da **sentimenei** diegun estimua, horiek berez baititugu estimatzen, haieen baliagarritasuna alde batera utzita, eta beste edozein baino gehiago, ikusmena. Eta ez bakarrik ekintzari begira, zeren, ezer egin behar ez badugu ere, esan baitezakegu nahiago izaten dugula ikusmena, gainerako sentimenak baino. Eta arrazoia hau da: sentimenetan berak laguntzen digula gehien gauzak **ezagutzen** eta haien alderdi ezberdin asko erakusten dizkigula”.

Aristoteles: Metafisika, I 1

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK:

TESTU ULERMENA. PUNTU 1.

Laburpena zuzentzeko irizpideak:

Kontuan izango da laburpena testua baino laburragoa izan behar dela.

Testua baino luzeagoa den azalpena idazten baldin badu ikasleak, ez da laburpen bezala onartuko.

0 PUNTU: Ikasleak ez du testuaren ~~ideia nagusia~~ aurkezten.

0.5 PUNTU: Ikasleak testuaren ideia nagusia aurkezten du baina ez oso modu egokian. ~~Jatorrizko testuaren hitzak gehiegi errepikatzen~~ dira edota ~~ez daude ideiak ondo lotuak.~~

PUNTU 1: Ikasleak testuaren ideia nagusia eta azpi-ideiak modu antolatuan aurkezten ditu. Testu ulermena ez da jatorrizko testuko hitzen errepikapen soilak: beste hitzekin eta hizkuntza filosofiko egoki batean laburtuta dago.


DISERTAZIOA. 4 PUNTU

2.- DISERTAZIOA: idatzi azpian duzun galderaren inguruko disertazio bat. Eman **tesiaren aldeko eta kontrako argudioak**, **historian zehar izan diren ikuspegi ezberdinak erabiliz eta borobildu zure idazlana ondorio eta iritzi pertsonalarekin**. (200-300 hitz)(4 puntu).
Ebaluatuko diren Konpetentzia Espezifikoak: 2, 3 ,8 eta 9.
Oinarritzako jakintzak: Erdi Arotik Europako Modernitatera.

“Aristotelesen iritziz, **jakintzaren prozesuan sentimenek oinarritzako iturri bat osatzen dute**. Garatu ezazu disertazio labur bat, gutxienez Platonen tesi horren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat emanek. Ondoren, aurkez ezazu zure hausnarketa tesi horri buruz.” (Eredu zaharra)


Kausen doktrina: Lau kausak

- **Kausa materiala.** “Harria”
- **Kausa formala.** “ugalkortasun jainkosa (Venus)”
- **Kausa eraginkorra edo motorra** “eskultorea”
- **Kausa xedezkoa.**
Mugimenduaren helburua
“ugalkortasuna bermatzea eta ospatzea”



“Lehen motorra”

- **Kausalitatea:** “Munduko gauza guztiek kausa bat dute” Kausa eta ondorio katearen segida.
- Lehen kausa edo lehen motorra izan ezik.
“Beharrezkoa da lehen kausa inkausatu bat egotea”=Jainkoa



Metafisika: lehen filosofia eta lehen zientzia

- a) Metafisikan, **lehen printzipioak eta kausak** demostraekin ikertzen dira.
- b) Metafisika **izanaren zientzia** da: identitatea, kontraesana, kausalitatea, aniztasuna, generoa, espeziea, beharrezkotasuna, potentzia... kontzeptuak aztertzen ditu.
- c) **Izana** (Egitura bikoitza):
 - partikularra (Substantzia) eta unibertsala**
 - **Substantzia**: “izaki konretu, indibidual eta sentigarria” (Erreala)
 - **Unibertsala** (Izana anizkoitza)

“Seinalatu dezakegu banako partikularra. (Zuhaitz hau)
Definitu dezakegu zerizan unibertsala. (“Zuhaitza”)

Substantzia: akzidenteak eta esentzia

- **Akzidenteak:** aldakorrak diran ezaugarriak
- **Esentzia:** sustantzia bat ezaugarritu eta besteengandik bereizten duena.



Platonen ideien teoriaren kritika aristotelikoa :Hilemorfismoa


“Munduko gauza guztiak forma konkretu bat hartu duen materiak osatzen ditu”.

Materia (*hile*) & Forma (*morfe*)

“Forma materiarekin bat eginik soilik izan daiteke”


Batasun hori “batasun sustantziala da” ezin da banandu.

PLATÓN



MUNDO DE LAS IDEAS

Verdadera realidad



Mundo físico

Copia imperfecta

ARISTÓTELES

Sustancia individual

FORMA

(esencia)

MATERIA







Arimaren teoria

Arima eta gorputzaren arteko batasuna esentziala da, ez akzidentala. Banaezinak dira.


Aristotelesentzat, arima gorputzaren forma esentziala da eta gorputza hiltzen danean, arimak ezin du substantziarik gabe iraun.

3 arima mota:

- Arrazionala (Psique): gizakiok baino ez dugu.
- Sentsitiboa (Mugimendua): animalia guztiek daukie. Automugimendua.
- Begetatiboa (Elikagarria): Izaki bizidun guztiek daukate.



LOS TRES NIVELES DEL ALMA EN ARISTÓTELES



Aktoa (Egintza) eta potentzia

Mugimendua eta aldaketa: potentziatik aktora pasatzea da.

- Aktoa: jadanik izakia dana.
- Potentzia: Izangaia

“Sua, aktoa, izangaia da egurrean”






Aldaketa edo mugimendu motak

- **Aldaketa esentziala (substantziala):** substantzia baten heriotza edo beste baten sorkuntzan datza

- **Aldaketa akzidentalak:**

- Aldaketa edo mugimendu kualitatiboa
- Aldaketa edo mugimendu kuantitatiboa
- Lekualdaketa edo translazio mugimendua

- Aldaketa **naturala/artifiziala**



Etika, sozialitatea eta politika

- Etika eta politika zientzia praktikoak dira.
- Etikaren helburua: giza jokabide ona edo bertutetsua, justua eta zoriontsua.
- Zoriona ezin da lortu bakardadean. Gizakiok modu naturalean elkartzen gara: familietan, herrixketan, hirietan. Etika eta politika ezin dira banandu.
- Politika: “***Gizakia animalia politikoa da***”
Gizakiaren izateko modua soziala da eta polisean bakarrik aurki dezake zoriona.

- **Eudaimonia: Gizakiaren azken xedea zoriona da, eta zoriona gure zerizana zintzo betetzen edo gure izangaiak ahalik eta gehien aktualizatzen datza.**

Eudaimonia ez da momentuko plazerretara murrizten (**hedonismoa**), baizik eta bizitza osasuntsu, bertutetsu eta arrazional batean oinarritzen da. Eudaimoniara iristeko, pertsonak bere gaitasunak garatu behar ditu, etikoki jokatzuz eta komunitatearekin interakzioan arituz.

Horrek esan nahi du gure nortasuna eta helburuak bat eginez bizitzea, alegia, egonkorra eta iraunkorra den zorion egoera lortzea.

"EUDAIMONIA"

Aristóteles

"FELICIDAD PERSONAL"



- Perseguir la realización del verdadero potencial individual
- Conocer las cualidades personales, cultivarlas y vivir de acuerdo a ellas
- Compromiso de uno mismo con una vida con sentido y propósito

- “*Virtus semper in media*”. Bertutea erdibidean. Bi muturren arteko oreka.
- “*Ohitura gizakien bigarren natura da*”: Gizakia ez da ona bihurtzen jakintsua izateagaitik (Sokratesen *intelektualismo moralaren* kontra). Gero eta gehiago praktikatu gero eta errezagoa egingo zaio ona izatea.
- Justizia ondasunen banaketa zuzena da. **Norberak merezia duena jasotzea:**
(Emakume eta esklabuen menpekotasuna justifikatu zuen, ahulagoak izateagaitik naturaltzat hartzen zuen menpekotasun hori)!!!

Erregimen politikoak

- **Monarkia**, "nobleenaren" gobernua (erregea edo monarka), herriaren erabateko onarpenagaz eta polisaren legeen gidaritzapean.
- **Aristokrazia**, onenen gobernua (gehiengoa menperatu eta gobernatzen duen klase bat).
- **Errepublika (*Politeia*)** [$\approx$ Demokrazia], guztion gobernua da, eratutako legeetatik abiatuta.

GOBIERNOS RECTOS		DESVIACIONES DE GOBIERNO	
MONARQUÍA Uno en beneficio de todos	→	TIRANÍA Uno en provecho propio	
ARISTOCRACIA Los mejores	→	OLIGARQUÍA Los ricos en su propio interés	
REPÚBLICA (<i>Politeia</i>) La mayoría sin perjudicar a la minoría	→	DEMOCRACIA La masa en interés del pobre	

Las seis especies de gobierno de Aristóteles

	Gobierno unipersonal	Gobierno por una minoría selecta	Gobierno de la mayoría
Gobierno puro	 Monarquía	 Aristocracia	 Orden civil
Gobierno impuro	 Tiranía	 Oligarquía	 Democracia

Erregimen politikoan degenerazioa

- Monarkia>**Tirania**: pertsona batek boterea bortizki lortzen du; legeak bete gabe eta tiranoaren interesari soilik erantzuten dio.
- Aristokrazia>**Oligarkia**: gobernatzen dutenak ez direnean onenak, aberatsenak baizik, eta, beraz, aberatsenen interesak zainduko dituzte.
- Errepublika>Demokrazia (**~Demagogia**): gobernuak txiroen interesari bakarrik erantzuten dio, ez komunitatearen onurari, eta, gainera, ez die jaramonik egiten legeei.

Politeia

Aristotelesek gobernu misto "demokratiko-aristokratiko" bat proposatzen du. Hiritarrek lurak banandu eta esklaboek landuko zituzten. Aristoteles "klase ertain" baten alde dago.

Es evidente que el régimen de tipo medio es el mejor, pues es el único libre de sediciones. Donde la clase media es numerosa es donde menos se producen sediciones y discordias entre los ciudadanos. Y las grandes ciudades están más libres de sediciones por la misma causa, porque la clase media es numerosa; en cambio, en las pequeñas es más fácil que todos los ciudadanos se dividan en dos clases, de modo que no quede nada en medio de ellas, y casi todos o son pobres o ricos.

Política, 1296a, 13-14

Filosofiaren historia USE

2021/2023/2024

“Gizaki guztiek berez dute **jakiteko** guraria. Horren adierazle da **sentimenei** diegun estimua, horiek berez baititugu estimatzen, haieen baliagarritasuna alde batera utzita, eta beste edozein baino gehiago, ikusmena. Eta ez bakarrik ekintzari begira, zeren, ezer egin behar ez badugu ere, esan baitezakegu nahiago izaten dugula ikusmena, gainerako sentimenak baino. Eta arrazoia hau da: sentimenetan berak laguntzen digula gehien gauzak **ezagutzen** eta haien alderdi ezberdin asko erakusten dizkigula”.

Aristoteles: Metafisika, I 1

1. BLOKEA. TESTUA ULERTZEA

1.1 Laburtu ezazu pasartea, testuko ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz. (1 puntu).

- Ikasleak testuaren **laburpena** egiten du, bertan jasotako **ideiak eta horien arteko lotura** errespetatzen ditu, **ez du hitzez hitz errepikatzen** eta **argi eta zehatz** adierazten du dena.
- Ikasleak **era antolatuan** aurkezten ditu ideiak eta eman duen erantzuna **erraz jarraitzeko modukoa** da. **Hizkuntza** erabiltzeko modua **filosofiarako egokia** da.

1.2 Azaldu itzazu azpimarraturiko terminoak. (1 puntu)
(50-75 hitz termino bakoitzeko).

- Ikasleak ondo deskribatzen du azpimarratutako kontzeptua, **hitzaren definizio orokorra** (0,1), **egileak zertarako erabiltzen duen** (0,3) eta hitz horren eraginez sortzen den **problematika** (0,1) azalduz. 0,5
- Ikasleak behar bezala deskribatu du azpimarratuta dagoen kontzeptua. 0.5

1.3 Aristotelesen iritziz, **jakintzaren prozesuan sentimenek oinarrizko iturri bat osatzen dute**. Garatu ezazu disertazio labur bat, gutxienez Platonen tesi horren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat emanaz. Ondoren, aurkez ezazu zure hausnarketa tesi horri buruz. (3 puntu) (200-300 hitz).

- Ikasleak testuan planteatzen den **gaia eraginkortasunez ulertzen duela frogatzen du**, eta **arretaz aztertzen ditu gaiarekiko bi ikuspuntu filosofiko, eztabaida kritikoa eginez**. Adibideak egokiak dira. **Iritzi pertsonala egokia** da- 3
- Ikasleak testuan planteatzen den gai filosofikoa eraginkortasunez ulertzen duela erakutsi du, eta gaiari buruzko bi ikuspegi filosofiko desberdin esploratu ditu, eztabaida kritikoa eginez. Adibideak egokiak dira. **Erantzun pertsonal egokiaren** zantzu onak duade.

Garai helenistikoa

- K. a. IV - K.a. I. mendeen artean.
- Polis sistema desagertzen da eta Alexandro Handiak mazedoniar inperio sortzen du.
- Zientzia, teknika, politika eta kulturaren garapen eta hedapen handia.
- Ardura filosofikoak moralaren eta zorientasunaren ingurukoak ziren.
- Eskola desberdinak sortu ziren.

GARAI HELENISTIKOA

EPIKUREISMOA

Epikuro

sufrimenduak
deuseztatu eta plazera
lortu

"plazer baketsua"

ongizate
fisikoa eta
espirituala

politika baztertu

ESTOIZISMOA

Zenon

plazera

buruaskitasuna
eta autokontrola

naturaren arabera
bizitzea

zoriontasuna patua
onartzean datza
(etsipena)

ez da bazterten
politikan parte
hartzea

ZINISMOA

Diogenes

arauekiko
haustura

aszesia,
ikaragalztasuna
eta handikeria eza

askatasuna
dakarren
bizimodua

ESZEPTIZISMOA

Pirron

iritzien balio
erlatiboa

gauza guztiekiko
ez-axola

zoriontasuna

Epikureismoa

Epikurok sortutako eskola. Emakumeak onartzen ziren bakarra.


Gizaki jakintsuak ez du politikan parte hartzen.

Adiskidetasuna eta askatasun pribatua garrantzitsuenak.

Ataraxia, “plazer baketsua”, du helburu. Sufrimendu eza bilatzen.

NO ES LO QUE
TENEMOS, SINO LO
QUE DISFRUTAMOS
LO QUE CONSTITUYE
NUESTRA
ABUNDANCIA.

Epikuro




Estoizismoa

Zenonek sortutakoa.

Benetazko askatasun pertsonala bilatu behar da, baina politikan parte hartzen.

Zoriontasuna ez da plazerean oinarritzen, baizik eta bertutearen etengabeko jardueran, buruaskitasunean eta autokontrolean. Kanpoko ondasunen irrikarik askatzen.

Zoriontasuna patua onartzean datza.



EL HOMBRE CONQUISTA EL MUNDO AL
CONQUISTARSE A SÍ MISMO.

(Zenón de Citio)

Zinismoa

Diogenes eta Krates eta bere emaztea **Hiparkia**.


(“Lehen emakume filosofoa”)

Gizartearen arauetiko haustura erradikala.

(“Txakur filosofoak”)

Askatasuna dakarren bizimodua: Egunean bizi.

Naturaren portaera zibilizazioaren hitzarmenak baino hobea zelakoan.



Eszeptizismoa

Pirronek sortutako eskola.

Ez dago egia objektiborik

Dogmatikoak ziren filosofoen kontra agertzen ziren.

(Dogmatikoek uste zuten “egia” aurkitu zutela). Baina, geure sentrazioek balio erlatiboa dute, eta ez dago gauzak bereizteko irizpiderik. Irtenbide bakarra: judizioa gelditzea. Ezin dugunez gauzei buruz ezer ziurrik adierazi, egokiena ezaxola da.

Ezertan sinesten ez zutenez ez ziren gatazkaetan sartzen.



DISERTAZIOA. 4 PUNTU

2.- DISERTAZIOA: idatzi azpian duzun galderaren inguruko disertazio bat. Eman **tesiaren aldeko eta kontrako argudioak**, **historian zehar izan diren ikuspegi ezberdinak erabiliz eta borobildu zure idazlana ondorio eta iritzi pertsonalarekin**. (200-300 hitz)(4 puntu). Ebaluatuko diren Konpetentzia Espezifikokoak: 2, 3 ,8 eta 9. Oinarrizko jakintzak: Erdi Arotik Europako Modernitatera.

Helenismotik aurrera zoriontasunari buruzko auziak garrantzi handia hartuko du, erlijioetan ere interesgune bihurtuz. Hiponako Agustinen ustez ondasun iraunkorrak dira zoriontasunaren iturburu, eta zehazki "Jainkoaren jabe dena da zoriontsu". Bada zoriontsu izaterik? Eta, hala bada, zerk egiten gaitu zoriontsu? (Eredu berria) 2025

Disertazioa: 4 puntu

- Estruktura egokia: puntu 1
- Argudiatze zuzena eta aberatsa: 1.5
- Originaltasuna: puntu 1
- Adierazpen argia eta zehatza: 0.5

Estruktura egokia: puntu 1

- **Sarrera argia** da: gaiaren aurkezpena egiten da, tesia aurkezten da edo galdera berri batekin planteatzen da.
- **Garapena argia** da: gaiarekin lotutako ideiak aurkezten dira eta ideien arteko lotura dago.
- **Konklusioa argia** da: tesiari eusten zaio eta horren aldeko/aurkako aurreko argudioak laburtzen dira.
- **Koherentzia** mantentzen da: ez dago kontraesanik.

Argudiatze zuzena eta aberatsa:

1.5

- Erreferentzia egiten zaie **gutxienez 2 autoreei**.
- Argudiaketa: galdetzen denari lotuta dago eta sendoa da. **Gutxienez 2 argudio** ematen dira.

Aurrekoak baloratzeko:

- **Objektiboa eta kritikoa** izateko esfortzua ikusten da, **aurreiritziek eramaten utzi gabe.**
- **Garapen koherente eta sendoa** egiteko esfortzua ikusten da.
- Arazoaren konplexutasuna kontuan hartzen du eta **filosofiaren historian landu diren ikuspegi aniztasuna islatzen du bere argudiaketan** (gutxienez **elkarren artean bateragarriak ez diren bi ikuspegi aipatzen ditu**, hau da, argudio edo ideia berdina elikatzen ez duten bi ikuspegi islatzen dituela).

Originaltasuna: puntu 1

- Egunerokotasunarekin lotuta dago.
- Ez da beste proposamen baten kopia egiten.
- Perspektiba pertsonala erakusten da

Disertazioa oinarrizko edukien bloke batekin lotuko da (A, B edo C), baina, **ikasleak edozein garaiko autoreren ekarpenak erabili ahal izango ditu** aldeko eta kontrako argudioak emateko eta baita iritzi propioa argudiatzeko edota egunerokotasunarekin lotzeko ere.

Adierazpen argia eta zehatza: 0.5

- Erabilitako **hiztegia egokia** da eta gaiarekin lotuta dago.
- **Paragrafoen arteko lotura** dago, **irakurketa erraza** delarik.
- **Sintaxia zuzena** da.
- **Aurkezpena txukuna** da.

Disertazioaren eredu frantziarra

1.- Sarrera argia: **gaia**ren aurkezpena egiten da, **tesia** aurkezten da edo **galdera berri bat**ekin planteatzen da.

2.- Garapen argia:

- **Tesia:** Hasierako erantzunaren planteamendua **argudio eta adibide** originalekin (Egunerokotasunarekin lotuta)
- **Antitesia:** Tesiarekiko kritika edo kontrako jarrera. (Bateragarriak ez dan **2. ikuspegi filosofikoa**), **argudio eta adibideekin**. **Eztabaida** kritikoa eginez.

3.- Konklusio argia (Sintesia): tesiari eusten zaio eta horren aldeko/aurkako aurreko argudioak **laburtzen** dira. **Idazlana** **borobiltzen da, ondorio eta iritzi pertsonalarekin**, planteatutako galderari behin betiko erantzun propio bat ematen saiatzen da.

3.- FILOSOFIAREN HISTORIA BERRIKUSTEN. Hautatu hurrengo galderetatik **Bi** eta garatu erantzun bakoitza **gehienez 250 hitzetan** (2x2,5 puntu).

Ebaluatuko diren Konpetentzia Espezifikoak: 4, 5 eta 6. Oinarrizko jakintzak: Modernitatetik postmodernitatera.

- *Alienazio ekonomikoa Marxen arabera.*
- *Apolineoa eta dionisiakoa Nietzscheren pentsamenduan.*
- *Feminismoaren garapen garaikidea: Simone de Beauvoir. Zer da emakumea izatea? “Emakumearen” kategoriaren problematizazioa.*
- *Kapitalismoaren kritika, Hannah Arendt-en totalitarismoaren analisia: Totalitarismoaren jatorria, gaitz absolutoa.*

GALDERA TEORIKOAK. 5 PUNTU (2 X 2,5 PUNTU)

Seinalatzen diren kalifikazioen artean ere puntuatu daiteke erantzun bat.

- 0 PUNTU: Ikasleak ez ditu galderak eskatzen dituen kontzeptu filosofikoak azaltzen. Erantzuna ez da hitz kopuruetara egokitzen.
- 0,75 PUNTU: Galderari buruzko azalezko erantzuna ematen du ikasleak. Kontzeptu filosofikoen erabilpena oinarritzkoa baino ez da eta kontzeptuen arteko lotura ez da oso argia. Erantzuna ez da hitz kopuruetara egokitzen.
- PUNTU 1,5: Galderari buruzko ezagutza ona duela erakusten du ikasleak. Galderak eskatzen dituen kontzeptu filosofikoen erabilpena egin ditu, baina ez ditu guztiak aipatzen edo behar beste garatzen. Erantzuna hitz kopuruetara egokitzen da.
- 2,5 PUNTU: Galderari buruzko ezagutza zabala eta sakona duela erakusten du ikasleak. Bikaina da kontzeptu filosofikoen erabilpena eta haien arteko lotura. Erantzuna hitz kopuruetara egokitzen da.

Galdera teorikoak

- Sarrera: Autorearen eta gaia kokatu (noiz, non, korrontea, gaiaren garrantzia ...)
- Garapena: Paragrafoetan bananduta. Galderan (epigrafean) planteatzen diren puntu guztiak azaldu, teoria ezagutzen dugula demostratzen (**Ezagutza zabala eta sakona**), **kontzeptu filosofikoak ondo erabiltzen** (Hiztegi tekniko eta zehatza), **ideien arteko lotura onak egiten** (ez eskematikoki).
- Amaiera: Laburpena, ondorioak, loturak (beste autoreekin ...)

ZUZENTASUN ORTOGRAFIKO:

Akats ortografiko bakoitza 0,1 punturekin zigortuko da, gehienez puntu 1 arte eta, guztira, probaren azken notaren %10eko murrizketa suposatuko du gehienez.